



LAN-JARDUERAREN HASIERA/AMAIERA JAKINARAZTEA, PENTSIODUNA IZATEAREKIN BATERA

GSINeko erregistroa

Izapide hori Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoen bidez (<https://sede.seg-social.gob.es>) eska dezakezu, ziurtagiri digitalarekin edota Cl@ve iraunkorrarekin. Identifikazio elektronikorako sistemarik ez baduzu, izapidea <https://run.gob.es/tramites> helbidean egin ahal izango duzu, edo sinatutako ale bat aurkeztu ahal izango duzu posta arrunta erabiliz. Presentzialki ere egin ahal izango duzu izapidea, Gizarte Segurantzaren Arreta- eta Informazio-zentro batera joanda, 901 10 65 70 / 91 541 25 30 telefono-zenbakietan edo <https://run.gob.es/trdcita> helbidean aurretiko hitzordua eskatu ondoren.

1. PENTSIODUNAREN DATUAK(*)

Lehen abizena		Bigarren abizena		Izena				
NAN-AIZ-Pasaporte	Ohiko bizilekua: (kalea, plaza)			Zenbakia	Blokea	Eskailera	Solairua	Atea
Posta-kodea	Herria			Probintzia				
Herrialdea		Posta-kutxa		Telefonoa				
Telefono mugikorra		Posta elektronikoa						

(*) Azken jakinarazpenetik hona aldatu badira bakarrik bete beharko dituzu helbidea eta harremanetarako datuak.

2. LAN-JARDUERAREN HASIERA JAKINARAZTEA(*)

BESTEREN KONTURAKO JARDUERA	NORBERE KONTURAKO JARDUERA
Jarduera mota: Egungo lanbidea: Eginkizunak: Lanaldia: ☐ Osoa edo ☐ Partziala Lanaldiaren ehunekoa, partziala bada: Jardueraren hasiera-data:	Jarduera mota: Ardurapeko langileak: Jardueraren hasiera-data:

(*) Jarduera artistikoen kasuan, erretiro-adin arrunta bete arte baino ez du jakinarazi beharko lan-jardueraren hasiera.

Aitortzen dut (ezabatu dagokiona): ☐ BAI, arituko naizela / ☐ EZ, ez naizela arituko sektore publikoko lanpostu edo goi-kargu batean, Herri Administrazioen Zerbitzura dauden Langileen Bataerazintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 1.1 artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoetako batean, zeina bataerazina baita erretiro-pentsioa jasotzearekin.

Erretiro-pentsioa jasotzen baduzu, eskatu honako hauek:

- ☐ ERRETIRO AKTIBOA. Modalitate honetarako, enpresaren adostasun-eredua aurkeztu behar da.
- ☐ ERRETIRO MALGUA. Modalitate honetarako, lan-kontratua aurkeztu behar da.
- ☐ PENTSIÖA ETETEA

Abizenak eta izena:

NAN - AIZ - Pasaportea

2

3.- JARDUERAREN AMAIERA JAKINARAZTEA

Jarduera amaitzeko eguna

4.- PRESTAZIOA JASOTZEKO DATUAK(*)

Erakunde ordaintzailearen izena

Egoitza

Herria

Posta-kodea

Probintzia

BANKU-DATUAK	HERRIALDE KODEA	BKK															
		ERAKUNDEA	BULEGOA/ SUKURTSALA	KONTROL DIG.	KONTUAREN ZENBAKIA												
	IBAN kodea																

(*) Atal hau jasotzen zenuen prestazioaren banku-datuak aldatu nahi izanez gero bakarrik bete behar duzu.

AITORTZEN DUT, inprimaki honetan ematen ditudan datuak egiazkoak direla.

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak zure baimena eskatzen dizu edozein Administrazioak dituen datu edo dokumentuak medio elektronikoen bitartez kontsultatzeko eta eskuratzeko, legeak datu horien eskuraketa babesten ez duenean eta horiek beharrezkoak direnean zure eskaera bideratzeko eta, dagokionean, onartutako prestazioa kudeatzeko:

- ☐ BAI, baimena ematen dut
- ☐ EZ, ez dut baimenik ematen

OHAR GARRANTZITSUA: Baimena ematen ez baduzu, zure eskaera bideratzeko eta, dagokionean, onartutako prestazioa kudeatzeko beharrezkoak diren dokumentuak emateko 10 egun balioduneko epea izango duzu.

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak zure baimena eskatzen du eskaera honetan emandako telefono mugikorra, helbide elektronikoa eta harremanetarako datuak erabiltzeko, Gizarte Segurantzaren arloko jakinarazpenak bidaltzeko.

- ☐ BAI, baimena ematen dut
- ☐ EZ, ez dut baimenik ematen

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA	
ARDURADUNA	Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala (GSIN)
HELBURUA	GSINren eskumena den Gizarte Segurantzako Sistemaren prestazioak kudeatzea
LEGEZTATZEA	Botere publikoak erabiltzea
HARTZAILEAK	Legez ezarritako edo baimenduz utzitako lagapenak eta transferentziak bakarrik egingo dira
ESKUBIDEAK	Datuak ikustea, zuzentzea eta kentzea; baita beste eskubide batzuk ere, informazio osagarrian azaltzen den moduan
JATORRIA	Beste administrazio eta erakunde batzuen datuak biltzen ditugu, legez ezarritako baldintzen arabera
INFORMAZIO OSAGARRIA	Informazio osagarri eta zehatza kontsulta dezakezu inprimaki honekin batera erantsitako informazio-orrian, "DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA" atalean

..... (e)n, 20 (e)ko ren (e)(a)n

Interesdunaren sinadura

Eskaera hau Internet bidez aurkeztuko baduzu, ez duzu inprimaki hau sinatu behar



ENPRESAK ERRETIRO AKTIBOKO PENTSIOA ESKATZEKO DUEN
ADOSTASUN-EREDUA

Adostasuna agertzen duen pertsonaren izen-abizenak:						
Zer kargu duen:		Enpresaren izena			Kotizazio kontuaren kodea	
Ohiko helbidea: (kalea, plaza, ...)				Zenbakia	Blokea	Eskailera
				Pisua	Atea	
Posta kodea	Herria	Probintzia	Telefono zkia		Telefax zkia	

8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 153. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, adostasuna ematen dio
.....(e)k eskatutako pentsioaren bateragarritasunaren ondoriozko lan-egoerari.
..... NAN zenbakiarekin, datatik aurrera enpresa honetan lan eginda.

Eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Probintzia Zuzendaritzan jasota gera dadin, honako akordio hau sinatzen du,

..... (e)n, 20 (e)ko ren (e)(a)n

Sinadura eta enpresaren zigilua

ERRETIROKO PENTSIODUNEI APLIKATZEKO BALDINTZAK

Erretiro aktiboa (zahartze aktiboa)

Aukera ematen du erretiro-pentsioa sektore pribatuaren eremuan norbere konturako edo besteren konturako lan batekin bateragarri egiteko, lanaldi osoan edo partzialean (horretarako ez da onargarria izango hobariei edo adinaurrerapenei lotutako erretirorik), baldin eta pentsioaren zenbatekoa oinarri arautzailearen % 100era iristen bada.

Bateragarritasun-egoera horretan kotizatzeke betebeharra aldi baterako ezintasunagatiko eta kontingentzia profesionalengatiko kotizaziora eta elkartasun-egoera berezira mugatzen da, eta hori ez da zenbatuko prestazioetarako. Lanarekin bateragarria den pentsioaren zenbatekoa % 50 edo % 100 izango da, egindako jarduera norbere konturakoa denean eta gutxienez besteren konturako langile bat kontratuta izatea egiaztatzen bada.

2022/01/01etik aurrera eragindako erretiro-pentsioen kasuan, beharrezkoa da, gainera, erretiro-adin arrunta bete eta urtebetera jasotzea pentsioa. Aitortuta eduki dezakeen atzerapenagatiko osagarri ekonomikoa jasotzea bateraezina da zahartze aktiboko modalitatearekin; hori dela eta, oroharreko zenbatekoa jasotzea aukeratu bada ("etorkizunera begirako" ordainketa), ezingo da hartu "erretiro aktiboa"; kasu horretan, erretiro-pentsiorako izaera orokorraz aurreikusitako bateraezintasun-arauak aplikatuko dira.

Pentsioa besteren konturako lan batekin bateragarri egingo bada, ERRETIRO AKTIBOKO PENTSIONA ESKATZEKO ENPRESAREN ADOSTASUN-EREDUA behar bezala beteta aurkeztu beharko du.

Erretiro malgua

Erretiro malgua da erretiro-pentsioa lanaldi partzialeko kontratu batekin eta, ondorioz, pentsioa murriztearekin bateragarri egiteko aukera. Erretiro-pentsioa bateragarria izango da besteren konturako lanaldi partzialeko lanekin, baldin eta lanaldi osoko langile alderagarri baten lanaldia gutxienez % 25 eta % 50 murriztuta.

Erretiro-pentsioaren zenbatekoa pentsiodunaren lanaldiari aplikatutako murrizketaren alderantzizko proportzioan murriztuko da, lanaldi osoko langile konparagarriaren aldean.

Erretiroa zati batean etenda dagoen bitartean lanaldi partzialeko jardueretan egindako kotizazioek erretiro-pentsioa hobetzeko ondorioak izango dituzte agian, lana utzi ondoren.

Pentsioa jasotzeari uztea. Bidezkoa da kasu hauetan pentsioa jasotzeari uztea:

- Erretiroa aldeztu aurretik hartu duenak edo adin hobariduna duenak lanaldi osoan egiten du lana.
- Oinarri arautzailearen % 100era iristen ez den erretiro-pentsioa jasotzen duenak lanaldi osoan egiten du lana.
- Pentsiodunak lanpostu bat du sektore publikoan.
- Erretiro aurreratuko pentsioa edozein modalitatetan jasotzen duenak jarduera artistikoak egitea, pentsiodunak ohiko erretiro-adina bete ez badu.

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

TRATAMENDUAREN ARDURADUNA	<i>Nor da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna?</i> Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala Padre Damián, 4 PK 28036 Madril, ESPAINIA https://sede.seg-social.gob.es
DATUEN BABESAREN ORDEZKARIA	<i>Nola jar gaitezke harremanetan Datuen Babesaren Ordezkariekin?</i> Gizarte Segurantzako Zerbitzu Juridikoaren Zuzendaritza Infanta Mercedes, 31 - 3ª Solairua PK 28020 Madril, ESPAINIA https://sede.seg-social.gob.es
TRATAMENDUAREN HELBURUA	<i>Zertarako erabiltzen ditugu zure datuak?</i> Zure datuak eskaera hau ebazteko, eta hala badagokio, aitortutako prestazioa kudeatzeko helburu nagusiarekin tratatuko dira. Zure harremanetarako datuak tratatzearen helburua jakinarazpenak egitea eta Gizarte Segurantzaren inguruko informazioa bidaltzea izango da. Emandako datu pertsonalak zure prestazioa kudeatzeko beharrezkoak diren bitartean gordeko dira, edo bere onuradunenak; baita beste helburu batzuetarako ere: artxibatzea, estatistika publikorako.
TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA	<i>Zer da zure datuen tratamendurako legitimazioa?</i> Lege-arau batek baimendutako botere publikoen erabilera oinarrituko da datuen tratamendua (66, 71, 72 77 artikulua eta elkarkideak 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duena, aurrerantzean, TRLGSS). Jakinarazpenei eta Gizarte Segurantzaren inguruko informazioen bidalketari dagokionez, tratamendua baimenaren bidez legeztatuko da. Baimenik ez baduzu ematen, ezin izango duzu jaso mota honetako bidalketak, hala ere, zure eskaeren egoerari buruzko informazioa eman ahalko dizugu kanal horien bidez. Horrez gain, jakinarazten dizugu ez duzula zure helbide elektronikorik eta telefono mugikorren zenbakirik eman behar, eta ez badiguzu ematen, zure eskaera izapidetzen jarraitu ahalko duzula.
LAGAPENEN EDO TRANSFERENTZIEN HARTZAILEAK	<i>Nori jakinaraziko dizkiogu zure datuak?</i> Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak bere eginkizunetan lortutako datu pertsonalak erreserbatuak dira, eta legez agindutako helburuetarako bakarrik erabiliko dira. Ezin zaie hirugarrenei laga edo jakinarazi, horren helburua GSELOTBren 77. artikuluan berariaz ezarritako kasuren bat bada, edo beste edozein lege-arautan adierazitako kasuren bat bada. Nazioarteko araudian oinarritutako eskaera bat bada, zure datuak zure eskaera izapidetzeko eskumena duten atzerriko erakundeei laga ahalko zaizkie.
INTERESDUNEN ESKUBIDEAK	<i>Zein dira zure eskubideak zure datu pertsonalak ematen dizkiguzunean?</i> Emandako datu pertsonalei dagokienez, edozein unetan eta datuen babesari buruzko araudiak ezarritako baldintzetan erabil dezakezu datu horiek ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubidea, edo tratatzeko baimena ken dezakezu hala eskatu den kasuetan. Hori guztia, idazki bat aurkeztuz Gizarte Segurantzaren Arreta eta Informazio Zentro batean (CAISS), edo postaz, edo Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoen bidez, Datuen Babeseko Ordezkararen aurrean. Datu horiek taula honen bigarren atalean daude. Jakinarazten dizugu zure eskaerari modu egokian ez diogula erantzun uste baduzu, erreklamazio bat aurkez dezakezula Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean.
JATORRIA	<i>Nola lortzen ditugu zure datu pertsonalak?</i> Zure eskaeran emandako datuez gain, beste administrazio eta erakunde batzuetatik beste datu pertsonal batzuk biltzen ditugu, arautegia betez, administrazio-jarduera arintzeko eta errazteko. Datuetarako sarbide horiek lege-maila duten arauak babesten dituzte.